

OSASUNEKO, GIZARTE LAGUNTZAKO ETA INGURUMENENKO FUNTSEN ELKARKETAREN ISAD

Identifikazio-arloa

Erreferentziak kodea	ES 48020 AHFB/BFHA DFB/BFA SAM
Titulua	Bizkaiko Administrazio Ataleko kultura eta hezkuntzako funtsak elkartzea
Data(k)	<ul style="list-style-type: none"> - Osasuna: 1598 - 1977 - Gizarte Laguntza: 1779 - 1981 - Ingurumena: 1759 - 1986
Deskribapen maila	Funtsak elkartzea
Deskribapen-unitatearen bolumena eta euskarria	<ul style="list-style-type: none"> - Metro linealak: 554 m/l - 330 LIBURU? - Katalogatutako espedienteen kopurua: <ul style="list-style-type: none"> - Osasuna: 69 - Gizarte Laguntza: 3.193 - Ingurumena: 271 <p>Dokumentazioaren zati handi bat katalogatu gabe dago oraindik, baina inbentarioa informatizatu egin da eskuragarri eta aurkitzeko moduan egoteko. Hala ere, dokumentuak katalogatuta ez daudenez, ez dira zehatz-mehatz bereizi aurreko dokumentu-tipologietako batean; beraz, ezin dugu zehaztu zer sektore ekonomikoetakoetakoak diren.</p> <p>Inbentarioan sartu diren dokumentu-kopurua: 62.520.</p> <p>Papera.</p>

Testuinguru arloa

Ekoizlearen izena	Bizkaiko Foru Aldundia
Instituzio historia	<p>Funtsen elkartze horrek Aldundiak Bizkaiko ekonomiaren produkzio-sektoreen kudeaketan dituen eskumenei egiten die erreferentzia, bai lehen sektorean, bai bigarren eta hirugarren sektoreetan.</p> <p>Funtsen elkartzeari lotutako dokumentazio-motari erreparatuta ikus daitekeenez, Bizkaiko Aldundiak eskumen handiak izan ditu, lehenik foruetatik eratorriak eta ondoren kontzertu ekonomikotik eratorriak, mendeetan zehar hartu duen izena edozein izanda ere.</p>



Instituzio historia	<p>Eskumen garrantzitsu horiek, araubide erkideko aldundiek izan ez dituztenak, botere handia eman diote lurralde historikoan osasunari, gizarte-laguntzari eta ingurumenari buruzko gaiak kudeatzeko eta horietan esku hartzeko.</p> <p>Gizarte-laguntzari dagokionez, Aldundiak egindako jardueren zati handi bat karitatearekin lotuta dago. Kontuan izan behar da gizarte-laguntzaren kontzeptua modernoa dela eta herritartasunaren eta ongizate-estatuaren kontzeptuarekin lotuta dagoela, hau da, eskubide subjektibo bihurtu da herritar bakoitzaren ongizate-estatua bermatzeko. Hala ere, historiaren zatirik handiengan, XX. mendearen bigarren erdian ongizate-estatua eraiki aurretik, pertsona behartsuenei buruzko kezka karitatearen kontzeptutik jasotzen zen, lehenik izaera erlijiosoko elkarrekin eta ondoren elkarrekin zibilekin lotuta. Ingurune horretan, pertsona askok bizi zuten prekaritate-egoera arintzen ere lagundu zuen Aldundiak, erakunde pribatuei zein haiek helbideratuta zeuden udalerriei emandako dirulaguntzen bidez. Jarduera horien onuradun gehienak kalteberatasun-egoeran zeuden adingabeak eta etxegabeak izan ziren, baina beste kolektibo batzuek ere jaso zuten Aldundiaren laguntza.</p> <p>Osasunari dagokionez, kontuan izan behar da, gizarte-laguntza bezala, ez zela herritarren oinarritzko eskubide bihurtu XX. mendeko urte berantiarretara arte. Horrek ez du esan nahi osasun publikoa bermatzeko jarduera garrantzitsuak gertatu ez zirenik, batez ere izurria, kolera, tifusa edo sifilia bezalako epidemia handien garaietan. Horrela, ongintzako erakundeekin gertatzen zen bezala, ospitaleak hasiera batean erakunde eta ordena erlijiosoek abiarazi eta kudeatu zituzten, eta Aldundiaren laguntza ekonomikoa izan zuten. XIX. mendearen amaieratik aurrera, erakunde publikoek sortutako ospitaleak agertzen hasi zirenean, Aldundiak ekarpen ekonomikoak egin zituen horietan, baita ospitale propioetan ere, Zaldibarko Manikomioan kasu, arazo mentalak zituzten pertsonak hartzeko.</p>
----------------------------	---



Instituzio historia	<p>Hau da, osasuna Aldundiaren lehentasuna izan zen beti, osasun publikoa zaintzeak gizarte osasuntsu bat lortzeko duen garrantzia kontuan hartuta. sate baterako, XIX. mendearen amaieran kolera-epidemiak zabaldu zirenean eta tuberkulosiaren ondoren, kasu horiek artatzeko ospitale espezifikoa eraikitzea eta instalatzea funtsezkoa izan zen epidemiak kontrolatzeko. Frankismoa amaitu ondoren Eusko Jaurlaritzaren berrezarri ondoren, osasun-arloko eskumenak bere gain hartu zituen erakunde horrek.</p> <p>Ingurumenari dagokionez, alderdi horrekiko kezka gaur egungoa da, argi eta garbi, betiere azken urteetan eraikitzen ari den kontzeptua dela kontuan hartuta. Hala ere, egiaztatu da XX. mendearen hasieran Aldundiak laguntza ekonomikoa ematen ziela Animalien Babeserako Elkarteei eta Animaliak eta Landareak Babesteko Bizkaiko Probintzia Patronatua garatu zela. Batez ere, ingurumenarekiko kezka Bizkaiko hainbat udalerritako moleta, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuak izeneko jardueren kontrolaren bidez islatzen da XX. mendearen zati handi batean.</p>
Artxibo historia	<p>Funtsen elkarketa honen artxibo historia, batez ere, Bizkaiko Aldundiak historian zehar izan dituen eskumen eskusiboen ondorioz sortu da.</p> <p>Gizarte-laguntzari, osasunari eta ingurumenari buruzko dokumentazioan hiru alderdi horiei buruzko gaiak sartzen dira, funtsean sozialak.</p> <p>Gizarte Laguntzari dagokion dokumentu-zatia XIX. eta XX. mendeak hartzen ditu batez ere, eta aurreko mendeetako dokumenturen bat ageri da, eskaleak, adingabeak eta horien heziketa, ongintzako establezimenduetarako hornidurak eta baita hilerriekin lotutakoak ere.</p> <p>Osasunari dagokion dokumentu-zatia XIX. eta XX. mendei dagokie batez ere, nahiz eta garai horren aurreko dokumentazioa egon.</p> <p>Ingurumenari dagokion dokumentu-zatia XX. mendekoa da nagusiki.</p>



Artxibo historia	<p>Bizkaiko Foru Agiritegi Historikora iritsi aurretik, 1878a baino lehenagoko zati historikoan, dokumentazio hori Gernikako Juntetxeko Agiritegian, Foru Liburutegian eta sortu ziren Bizkaiko Foru Aldundiko sailtako bulegoetan egon zen.</p> <p>Ez dugu ahaztu behar Bizkaiko Foru Aldundia, edozein motatako gainerako erakunde publikoak bezala, administrazio-prozesu konplexu bat hasi zuela XIX. mendearen erdialdetik aurrera, estatu liberal eta zentralistatik abiatuta ezarri zen burokratizazio administratibo handiagoari lotuta.</p> <p>Osasunari, gizarte-laguntzari eta ingurumenari buruzko dokumentazioa ematen duten erakunde eta/edo sail horien artean, Borboien Zaharberritzearen garaian dokumentazio gehiena sortzen dutenak lurraldeko gobernuaren organo nagusiak dira, denboran zehar bata bestearen atzetik doazen aldundiekin batera. Bigarren Errepublikatik aurrera, Gobernazio Atalak bere gain hartu zituen eskumenak Aldundiaren barruan, eta, ondoren, ongintzaz eta gizarte-ekintzez arduratzen ziren batzorde eta atalen eskumena izan zuen, harik eta 80ko hamarkadan gizarte-ongizateko saila sortu zen arte.</p>
Sarrera modua	1987tik aurrera lekualdatu zen Bizkaiko Jaurerriak 1878 arte sortutako dokumentazioa, Gernikako Juntetxeko Artxiboan gordeta zegoena, eta ondoren Bizkaiko Foru Aldundiak sortu zuena, Bilboko Foru Liburutegian zegoena, bai eta beste erakunde batzuen eskumenen transferentzia bidez jasotakoa ere: Euskadiko Estatua eta Gobernu Autonomoa.

Eduki eta egitura arloa

Irismena eta edukia	Bizkaiko Jaurerriko erakundeek eta Aldundiak sortutako agiritegi historikoko dokumentazioa, jasotakoa.
Balorazioa, hautaketa eta ezabaketa	Kontserbazio iraunkorreko dokumentazioa.
Sarrera berriak	Transferentzia bidezko sarrera berriak gerta daitezke.



Erakundea	<p>Dokumentazioaren antolaketa probintzia-aldundietako artxibozainen lantaldearen sailkapen-koadroan oinarrituta egin da, eta beharrezko serieak zabaldu eta aldatu dira, lurralde erkidearen aldean Bizkaiko Foru Aldundiari dagozkion eskumen kopururik handiagoaren ondorioz.</p> <p>Funts-multzo honen dokumentazioa katalogatzeko erabilitako koadroaren serieak obrei, gizarte-laguntzari, osasunari eta ingurumenari dagozkienak dira.</p> <p>Gizarte laguntzako serieek honako jarduketa hauek hartzen dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none">– Batzordeak eta batzarrak: 24 dokumentu 1819 eta 1981 bitartekoak.– Etxegabeak: 54 dokumentu 1801 eta 1972 bitartekoak.– Adingabeak: 169 dokumentu 1787 eta 1954 bitartekoak.– Beste talde batzuk: 2946 dokumentu 1779 eta 1980 bitartekoak. <p>Osasuneko serieek honako jarduketa hauek hartzen dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none">– Batzordeak eta batzarrak: 20 dokumentu 1819 eta 1977 bitartekoak.– Epidemiak: 18 dokumentu 1598 eta 1887 bitartekoak.– Ospitaleak eta beste osasun-zentro batzuk: 17 dokumentu 1726 eta 1872 bitartekoak.– Hilerrak: 11 dokumentu 1787 eta 1878 bitartekoak.– Gaixo mentalak: 2 dokumentu 1824 eta 1884 bitartekoak.– Osasuneko langileak: 1 dokumentu 1854koa. <p>Ingurumeneko serieek honako jarduketa hauek hartzen dituzte:</p>
------------------	--



Erakundea	<ul style="list-style-type: none"> - Natura babesteko espedienteak: 13 dokumentu 1759 eta 1980 bitartekoak. - Korrespondentzia: 12 dokumentu 1972 eta 1979 bitartekoak. - Azterlanak: 7 dokumentu 1970 eta 1985 bitartekoak. - Kutsadurari buruzko espedienteak: 26 dokumentu 1971 eta 1982 bitartekoak. - Dirulaguntzen espedienteak: 1 dokumentu 1977koa. - Txostenak: 149 dokumentu 1936 eta 1980 bitartekoak. - Inbentarioak: 1 dokumentu 1986koa. - Liburu-erregistroa: 56 dokumentu 1961 eta 1967 bitartekoak. - Salaketak: 1 dokumentu 1969koa. - Baimenen espedienteak: 3 dokumentu 1972 eta 1975 bitartekoak. - Jarduera gogaikarrien espedienteak: 1 dokumentu 1979koa. - Erreklamazioak eta baliabideak: 1 dokumentu 1978/1979koa. <p>Dokumentazio guztia ordenatuta dago Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa hartzen duen eraikinean dauden kutxetan.</p> <p>Inbentariatutako dokumentazioaren zatiak 41449 dokumentu ditu gutxienez, 1742tik 1995era bitartekoak.</p>
-----------	---

Sartzeko eta erabiltzeko baldintzen arloa

Sartzeko baldintzak	Sarrera askea. Salbuespenetarako, ikus Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoaren ISAD.
Erreproduzio baldintzak	Erreproduzio askea. Salbuespenetarako, ikus Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoaren ISAD.
Dokumentuen hizkuntza/idazkera	Gaztelania.
Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak	Kontserbazio-egoera, oro har, ona da.
Deskribapen tresnak	Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoaren Administrazio Funtsean honako hauek erabiltzen dira:



<p>Deskribapen tresnak</p>	<p>a. Saillkapen koadroa.</p> <p>b. ARWE datu-basea, artxiboari buruzko informazioa kudeatzeko. Hainbat sarbide-puntu eta onomastika-, toponimia- eta gai-indize ditu.</p> <p>c. ARIT datu-basea, kanpo-kontsultarako, aurrekoaren informazio eta sarbide berarekin.</p> <p>Bai katalogatuta dagoen dokumentazioaren zatia, bai inbentariatuta dagoena, eskuragarri dago jendearentzat, legeek zehaztutako salbuespenetan izan ezik.</p>
----------------------------	--

Lotutako dokumentazio arloa

<p>Jatorrizko dokumenturik ote dagoen eta horien kokalekua</p>	<p>Dokumentazio guztia originala da.</p>
<p>Kopiarik ote dagoen eta horien kokalekua</p>	<p>Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoan bertan, dokumentazioaren zati bat digitalizatzen ari dira. Dokumentazio hori Internet bidez eskura daiteke, ARIT datu-basearen bidez.</p> <p>Dokumentazioaren zati baten kopia digitalizatuak daude, baina digitalizazio-prozesua gauzatzen ari da; beraz, zehaztuko dugun informazioa zabaldu egingo da.</p> <p>Gizarte laguntzako gaien dokumentazioaren artean 254 dokumentu digitalizatu dira, 1779 eta 1906 artekoak. Digitalizatutako dokumentazioa honela banatzen da dokumentu-tipologien arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Batzordeak eta batzarrak: 6 dokumentu. – Etxegabeak: 29 dokumentu. – Adingabeak: 48 dokumentu. – Beste talde batzuk: 171 dokumentu. <p>Osasuneko dokumentazioaren artean 45 dokumentu digitalizatu dira, 1726 eta 1884 artekoak. Digitalizatutako dokumentazioa honela banatzen da dokumentu-tipologien arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Batzordeak eta batzarrak: 8 dokumentu. – Epidemiak: 9 dokumentu. – Ospitaleak eta beste osasun-zentro batzuk: 17 dokumentu. – Hilerrak: 8 dokumentu. – Gaixo mentalak: 2 dokumentu. – Osasuneko langileak: 1 dokumentu. <p>Ingurumeneko dokumentazioaren artean, 1759 eta 1775 bitartean, 3 dokumentu digitalizatu dira, natura babesteko espedienteen tipologia dokumentalaren barruan.</p>



Lotutako deskribapen unitatea	Osasunarekin, gizarte-laguntzarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten dokumentu-iturriak daude BFAHren atal guztietan, batez ere Udal sailean eta sail judizialean.
Argitalpenei buruzko oharra	<ul style="list-style-type: none">– Bizkaiko Foru Aldundia, (1997). Bizkaiko ondare historikoaren hamar urteko kudeaketa. Kultura Saila. Ondare Historikoaren Zerbitzua.– Cifuentes Pazos, José Manuel (2002). “El Archivo Histórico Administrativo de la Diputación Foral de Bizkaia”. Dokumentu Ondarearen Kudeaketari buruzko III. Jardunaldietako Aktetan. Probintzia-administrazioaren artxiboak: Aldundiak, Gobernu Zibilak, Ordezkaritzak, Audentziak, Probintzien historikoa. Kordoba, 2002ko urriaren 28tik 30era. (329 – 338. or.)

Oharren arloa

Oharrak	
---------	--

Kontrol arloa

Artxibozainaren oharra	Actuaciones Culturales Estrategicas 4, S.L. enpresak Bizkaiko Agiritegi Historikoko Bizkaiko Administrazioaren atalerako egindako deskribapena, enpresako teknikariak gainbegiratuta.
Arauk edo erregelak	General International Standard Archival Description, Second Edition, ISAD (G) (Deskribapen Artxibistikorako Nazioarteko Arau Orokorra. Deskribapen Arauen Batzordeak 1999ko irailaren 19an Stockholmen (Suedia) egindako Artxiboen Nazioarteko Kontseiluan onartua. Madril. 2000.
Deskribapenaren data	2020/01/20